



**Hezkuntza publikoan  
lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
**Otsailak 20ko greba balorazioa**

## **Urtarrileko eta otsaileko Sukalde eta garbiketako grebek jarraipen oso zabala izan dute**

Urtarrilerako eta otsailerako LAB, ELA eta CCOOek deitutako Hezkuntza Saileko Sukalde eta Garbiketako **lau greba egunek jarraipen zabala izan dute.** Urtarrilekoek izan zuten jarraipena otsailekoetan gainditu ere egin da sukaldeetan.

**Kolektibo** hau **feminizatuena** den Hezkuntza saileko esparrua da eta **lan baldintza prekarioenak** dituen, baita **privatizazio prozesu handiena** bizi duena ere. 1.000 langile izan dira grebara deituak.

Gogoratu behar dugu Eusko Jaurlaritzak **gehiegizko zerbitzu minimoen bitartez** zein hauen aplikazioarako irizpide neurrigabeak ezarriz, kolektibo honen **greba eskubidea baldintzatu** nahi izan duela. Hala ere, **mobilizazioetan ehunka sukaldari eta garbitzaile** bildu gara eta **jarraipena %70 ingurukoa** izan da **batez beste.**


Esan beharra dago greba zikloan zehar negoziazio mahaiak deitu dituela Hezkuntza Sailak eta azken bilera otsailaren 11an izan zen. Bileran hauetan, **grebek behartuta zenbait eduki mahai gainean jartzen hasi da**, funtzioen gaia esaterako. kategorien egokitzapenari buruz ere hitz egiten hasi da. **Halere, lan hitzarmen berria sinatzeko proposamenak jorrazetik eta ekartzetik urrun dago.**

Hitzarmena berritzeko grebetako **aldarrikapen nagusiak** hauek dira: **lan zamak** arintzeko bazkaltiar eta garbiketa ratioak hobetzea eta lanaldiak murriztea; **gazteberritze planak** adostea; galdutako **eros-ahalmena berreskuratzea**; **funtzioak** definitzea eta **kategoriak** egokitzea; **enplegua bermatzea eta egonkortzea** eta privatizazio zein fusio edo itxieren bidez lanpostu suntsiketarako eragozteko neurriak hartzea, **ordezkoen araudia** negoziatu eta adostea, **lizentziak eta baimenak** hobetzea eta **lan osasun, berdintasun eta euskara planak** garatzea.

**Hurrengo bilera martxoaren 6**rako dago aurreikusita. Grebetan aldarrikatzen ari garen edukiak ikasleen arreta egokia ere bermatzera bideratuak daude. **Jaurlaritzari galdegiten diogu langileak entzun ditzala eta grebetan aldarrikatutako eskaerei erantzun diezaiola.**

Gauzak horrela, **dinamika honen balorazioa eta hurrengo pausuak zeintzuk izango diren baloratzen ari gara, greba dinamikarekin jarraitzea baztertu gabe.**

**Borrokak merezi duelako, zorionak sukaldari eta garbitzaileei!**



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

COCINA/LIMPIEZA

## **Nota de prensa:**

**Valoración de la huelga del 20 de febrero**

### **Las huelgas de cocina y limpieza de enero y febrero han tenido un seguimiento muy amplio**

**Las cuatro jornadas de huelga** de Cocina y Limpieza del Departamento de Educación convocadas por LAB, ELA y CCOO en enero y febrero **han tenido un amplio seguimiento**. Llegando a superar en las de febrero el seguimiento de las huelgas de enero en las cocinas.

Este **colectivo es el más feminizado** y con las **condiciones laborales más precarias** del departamento de Educación, así como el que vive un **mayor proceso de privatización**. 1.000 trabajadoras han sido llamadas a la huelga.

Debemos recordar que el Gobierno Vasco ha querido **condicionar el derecho a al huelga** de este colectivo a través de **servicios mínimos abusivos** y estableciendo criterios desproporcionados para su aplicación. Sin embargo, en las movilizaciones nos hemos reunido cientos de personas del colectivo de cocina y limpieza y **el seguimiento ha rondado el 70% de media**.

Hay que decir que a lo largo del ciclo de huelga el Departamento de Educación ha convocado mesas de negociación, la última reunión fue el 11 de febrero. **Las huelgas han obligado a poner en estas reuniones algunos contenidos encima de la mesa**, como el tema de las funciones. También ha empezado a hablar de la adecuación de categorías. **Sin embargo, está lejos de abordar y traer propuestas para la firma del nuevo convenio laboral**.

Las **principales reivindicaciones** de las huelgas de renovación del convenio son: mejorar los ratios de comensales y limpieza para aliviar las **cargas de trabajo** y reducir las jornadas laborales; acordar **planes de rejuvenecimiento** de la plantilla; **recuperar el poder adquisitivo** perdido; definir **funciones** y adecuar **categorías**; garantizar y estabilizar el empleo y adoptar medidas para evitar destrucción de puestos de trabajo mediante privatizaciones y fusiones o cierres, negociar y acordar la **normativa de sustituciones**, mejorar las **licencias y permisos** y **desarrollar planes de salud laboral, igualdad y euskera**.

La **próxima reunión está prevista para el 6 de marzo**. Los contenidos que estamos reivindicando en las huelgas están dirigidos a garantizar también una atención adecuada al alumnado. **Pedimos al Gobierno Vasco que escuche a la plantilla y que atienda a las peticiones que se han reivindicado en las huelgas**.

Así las cosas, **estamos haciendo la valoración de esta dinámica y cuáles serán los siguientes pasos, sin descartar continuar con la dinámica de huelga**.

**Porque la lucha vale la pena, ¡enhorabuena cocineras y limpiadoras!**